



Aurten ere, iritsi zaigu gure jardueraren urteroko balantzea egiteko unea. Eta, ohi bezala, urte honek ere **itzalak eta argiak** izan dituela esan beharra dugu. Politika sozialetan murrizketak gupidagabe eragiten ari den krisi ekonomiko baten **itzalak**, eta emaitzak, batzuetan gehiago bestetan gutxiago, ematen jarraitzen duen jarduera baten **argiak**.

Gure federazioak eta federazioa osatzen duten elkarteek urte asko daramatzate lanean, eta, sarri egiten dizkiguten zango trabak zango traba, jabetzen gara **gure seme-alaben eta gure komunitatean gorreria jasaten duten pertsonen bizimodua nabarmen hobetzen laguntzen dugula**.

Oraindik ere baditugu tirabirak Osakidetzarekin, Hezkuntzarekin, Eusko Jaurlaritzako hango eta hemengo zerbitzu sozialekin, diputazioekin eta udalekin. **Oraindik ere ez dituzte erabat ulertzen gorreria jasaten duten pertsonen arazoak, eta, oraindik ere, ez dute ulertzen ez dela kolektibo homogeneo bat; ez dira jabetzen kasuen arteko aldeak funtsezkoak direla konponbide egiazkoak eta gauzagarriak bilatzeko orduan.**

Eta, **hala ere, geroz eta gehiago, erreferentea gara gure seme-alaben bizimodua hobetzeko konponbideak eta gure gizarte osoarentzat aberastasun handiagoa sortzen laguntzen duten konponbideak eskaintzeko orduan.**

Profesionalok, boluntariook eta familiok egunez egun egiten ari garen lanari denboraren ikuspuntutik begiratu behar zaio, gure helburuak zeintzuk diren ahaztu nahi ez badugu.

Atzera begiratu gero, konturatuko gara ikaragarriak izan direla gure kolektiboan izandako aldaketak duela 16 urte luze gure federazioa sortu zenez geroztik. Horretan lagundu dugu, eta horretan laguntzen jarraituko dugu.

FEVAPASEN PROGRAMAK 2010. URTERAKO

GIZARTERATZEKO JARDUERAK

Aisialdiko heziketa-programak / Euskal Herrian entzumen-desgaitasuna duten haurrentzat

URKIOLAKO SANTUTEGIA / 10.02.20 / 17 parte hartzaile

Asteburua BERNEDOñ, Araban / 10.05.14-16 / 22 parte hartzaile

Gazteen arteko elkartzea ZUATZAKO UHARTEAN / 10.06.22-25 / 14 parte hartzaile

Udalekuak SANTOÑAN, Kantabrian / 10.07.1-10 / 33 parte hartzaile

BERMEDOñ, Bizkaian / 10.10.02 / 14 parte hartzaile



2010ko BEHIN-BEHINEKO Egitasmoa: Otsaila: Elurretara joango gara, Lekunberrira - **Maiatza:** Asteburua Seguran, Gipuzkoan - **Ekaina:** Gazteen arteko elkartzea Zuatzako Uhartean - **Uztaila:** Kanpamenduak Etxarrin, Nafarroan - **Urria:** Balmasedara, Bizkaia, egingo dugu irteera.



BOLUNTARIOAK – Begiraleak

Aipatutako jarduera guztiak ez lirateke posible izango elkarte federatuak eta Fevapasek dituzten begirale boluntarioen laguntzarik gabe.

KOMUNIKAZIOA Talde-dinamiketan

Horixe da aurten urriaren 23an Bizkaiko ULERTUZ Elkarte Federatuaren lokaletan egindako Begiraleen Heziketa-ikastaroaren izenburua. **6 lagunek hartu zuten parte, horietatik 4 lagunek entzumen-desgaitasuna zuten, eta beste bik entzule gisa hartu zuten parte.**

Urtxintxa Eskolako profesional batek eman zuen ikastaroa, eta zeinu-mintzairako bi interpretari aritu ziren zeinu-mintzaira interpretatzen.

FAMILIAK

2010ean, **Fevapasek**, familien eta gorren euren BIZI KALITATEA HOBETZEKO asmoz, **elkarte federatuak koordinatzen** jarraitu du, familiei laguntzeko elkarrekin egiten duten lan bateratuan.

Lanaren xedeak: 1.- Orientazio eta informazio gaurkotua, objektiboa, zabala eta zehatza

2.- Laguntza psikologikoa eta emozionala, eta 3.- Familiari informazioa eta prestakuntza ematea.

Baliabideak: 1.- Zuzeneko laguntza eta kasuz kasuko segimendua. 2.- Banakako eskaerak kudeatzea. 3.- Aita-amek aita-amei laguntzea. 3.- Gogoeta eta prestakuntza-taldeak. 4.- Laguntza psikologikoa. 5.- Familia-topaketak. 6.- Sozializazio-ekintzak. 7.- Zenbait profesionalekin aldizka koordinatzea (otorrinoekin, audioprotesistekin, logopedekin, hezitzaileekin, eta abar). 8.- Informazioa eta prestakuntza emateko hitzaldiak. 9.- Sentsibilizazio-ekintzak

Pertsona Gorren Munduko Eguna 2010:

Aurten, Fevapasek, Euskal Gorrak elkartearekin batera, Pertsona Gorren Munduko Eguna antolatzen parte hartu du.

Irailaren 25ean izan zen, Bilbon. / Umeentzako tailerrak, ipuin-kontalaria eta mimoa izan ziren jai- eta aldarrikapen-egun horretan. Bertan, gorrek, seni-deek, politikariek eta, orokorrean, herritarrek, egun euritsu batean, elkartearen informazioa eta esperientziak konpartitu zituzten.



Fevapas INFORMAZIOA

KLOKEAKO INPLANTEAK ETA AUDIFONDAK BERRITZEA

Drain arte, audifonoa, moldeak eta protesien konponketak (16 urtetik beherakoentzat soilik) baino ez ziren sartzen. Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE), 2010eko ekainaren 7koan, maiatzaren 28ko SAS/ 1466/2010 Agindua argitaratu da. Agindu horrek irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren (Estatuko Osasun Sistemaren zerbitzu komunen eskaintza eta eguneratzeko prozedura ezartzekoa) VI. eranskina EGUNERATZEN DU.

Dekretu horren (1030/2006) VI. eranskina

- 1.- Prestazio ortoprotesikoaren edukia arautzen du
- 2.- KLOKEAKO INPLANTEAK SARTZEN DIRA, **inplante kirurgiko gisa,**
- 3.- **EZ DA berariaz zehazten KLOKEAKO INPLANTEEN KANPOKO OSAGAIK BERRITZEA**



Estatuko Agindu berri honetan (SAS/1466/2010)

1.- VI. eranskina eguneratzen da

2.- ZEHAZTU EGITEN DA, KLOKEAKO INPLANTEAK BERRITZEAN, SARTUTA DAUDELA inplanteen KANPOKO OSAGAIK (kanpoko prozesadorea, mikrofonoa eta antena)

HAU DA:

6. paragrafoko 6.1. puntuko OR 1 0 epigrafean (Klokeako inplanteak) **hauxe adierazten da:**

OR 1 0 Klokeako inplanteak (kanpoko osagaiak berritzea SARTZEN DA: kanpoko prozesadorea, mikrofonoa

Eusko Jaurlaritzan, eta, hain zuzen ere, Osakidetzan, **EZ DUTE DRAINDIK ARAUDI EGUNERATURIK** horri buruz. Eta ez da zehaztu nola egin eskabidea. *Horri buruz galdetzen dugunean, ez dakitela erantzuten digute.*

Fevapasen iritziz, horrek ez du eragozten, Euskal Autonomia Erkidegoan eskumena duen organoari, klokeako inplanteetarako laguntza ekonomikoa eskatzea, **KANPOKO OSAGAIETARAKO BARNE, AUDIFONDAK** eskatzen diren modu berean. Hori dela eta...

Eskabidea aurkezteko ANIMATZEN ZAITUZTEGU, klokeako inplantearen kanpoko osagaien bat eskuratu behar duzuenean.

Horretarako, ez dagoenez dokumentu ofizialik, JO EZAZU dagokizun elkartera*, eta bertan aholkatuko zaituzte.

* ARANSKI Gipuzkoan – ASPASOR Araban – ULERTUZ Bizkaian

2010ean, FEVAPAS zeinek:

Eusko Jaurlaritzako HEZKUNTZA Saila: Maiatzaren 10ean / Azaroaren 19an, bilerak Hezkuntza Sailburuordetzarekin eta ikasle gorrentzako hezkuntza-batzordearekin. Ikasle gorren jarraipena hezkuntza-etapa bakoitzean. Baliabide eta materialak. Laguntzako figura berriak. Batxilergoko curriculum, entzumen-desgaitasuna duten ikasleentzat...

Ejko OSASUN Saila: Otsailaren 3an, bilera Osasuneko sailburuarekin eta Osakidetzako zuzendari nagusiarekin. Haur gorren egungo egoera osasun-eremuan, detekzio goiztiarreko programak, audiofono eta klokeako inplanteen finantzaketa...

OSAKIDETZA: Otsailaren 16an / Azaroaren 13an, bilerak Osakidetzako zuzendariordearekin eta osasun-laguntzako hainbat teknikarirekin. Haurren gorrerriaren edo detekzio goiztiarreko programaren (HGDB) jarraipena. Osakidetzaren eta Osasun Sailaren artean programa horren eta beste gai batzuen jarraipena egiteko laster sortzeko den batzorde teknikoari buruzko informazioa.

Apirilaren 21ean, bilera Legebiltzarreko Osasun Batzordeko buruarekin. EAEko pertsona gorren beharrianak eta oraingo osasun-egoera azaltzea.

Eusko Jaurlaritzako GIZARTE GAETAKO Saila: Urtarrilaren 13an / Otsailaren 9an / Uztailaren 26an / Urriaren 15ean, bilerak Gizarte Gaietako sailburuordearekin, Familia Politikako zuzendariarekin eta saileko hainbat teknikari eta zuzendari-kargurekin. Sail horretako dirulaguntza-agindu berriei buruzko informazioa eta sail horretan aurkeztu diren proiektuei buruzko jarraipena.

EITB: Maiatzaren 10ean, bilera erakundeko zuzendari-kargu berriei. Azpitolazioaren eta zeinu-mintzairaren egungo egoera. Azpitolazioaren orduak eta kalitatea hobetzeko proiektuak.

EUSKAL GORRAK (EG): Otsailaren 18an / Apirilaren 14an / Uztailaren 13an eta 22an / Irailaren 11n / Urriaren 7an, bilerak EGko hainbat ordezkari eta teknikarirekin, 2010eko Pertsona Gorren Munduko Egunaren plangintza, antolaketa, jarraipen eta ebaluazioarako (Bilbon egin zen, irailaren 25ean).

EDEKA: Fevapas Edekako partaide da oraindik eta desgaitasun arloko beste euskal federazio batzuekin elkarre horretan lan egiten du (Euskal Cermi). Fevapas presente dago batzorde eragileren bileretan (hilean behin), bai eta sortuz joan diren lantalde guztietan ere.

2010ean, FEVAPAS non:

- 1.- **Gizarte Langintzako III. Jardunaldia,** "Jardute komunitarioa argituz eta SARetuz". 2010eko martxo. Gasteiz.
- 2.- "Etikari eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Gogoeta eta Etabaidarako Osagaiak Eguneroko Jardunean" **Jardunaldia.** 2010eko maiatza. Gasteiz.
- 3.- **FEKODOR III. Jardunaldia** (Bizkaiko Desgaitasun Fisikoa): "Gizarteratzea: Diskriminazioaren kontrako tresna". 2010eko ekaina. Bilbo.
- 4.- "Gizarte Zerbitzuen Eredu Berri Baterantz" **EJren Jardunaldia.** 2010eko ekaina. Gasteiz.
- 5.- "Emakume Gorra" **EGren II. Jardunaldia.** 2010eko urria. Bilbo.
- 6.- **Eginaren Eginez Elkartearen Jardunaldiak** (Arabako Desgaitasun Fisikoa): Funtzio Aniztasuna duten Emakumeak: Bereizkeria Anizkoitza". 2010eko azaroa. Gasteiz.
- 7.- **Edekaren IV. Jardunaldia:** "Urritasuna duten pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko batzarra". 2010eko azaroa. Donostia.
- 8.- **Gizarte Langintzako I. Jardunaldia:** "Komunikazioa Gizarte Laguntzan". 2010eko azaroa. Gasteiz.
- 9.- **EGren II. Jardunaldiak** "Seme-alaba entzuleak dituzten familia gorra". 2010eko azaroa. Donostia.



FEVAPASEN IZENEAN,
EGUBERRI ON

LAGUNTZAILEAK



ENPLEGU ETA GIZARTE GAETAKO SAILA
Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza
Familia eta Komunitatea Politikarako
Zuzendaritza